EBAZPENA, TOKI ADMINISTRAZIOEKIKO HARREMANETARAKO ETA ADMINISTRAZIO ERREGISTROETAKO ZUZENDARIARENA ETA INGURUMEN KALITATEAREN ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ AURRETIKO KONTSULTA PUBLIKOAREN MENDE JARTZEN BAITA COLEGIO PROFESIONAL DE AMBIENTÓLOGAS Y AMBIENTÓLOGOS DE EUSKADI IZENEKO ELKARGOA ERATZEKO LEGE-AURREPROIEKTUA.

RESOLUCIÓN DE LA DIRECTORA DE RELACIONES CON LAS ADMINISTRACIONES LOCALES Y REGISTROS ADMINISTRATIVOS Y DEL DIRECTOR DE CALIDAD AMBIENTAL Y ECONOMÍA CIRCULAR, POR LA QUE SE SOMETE A CONSULTA PREVIA LA ELABORACIÓN DEL ANTEPROYECTO DE LEY DE CREACIÓN DEL COLEGIO PROFESIONAL DE AMBIENTÓLOGAS Y AMBIENTÓLOGOS DE EUSKADI

Euskal Autonomia Erkidegoak profesionalen elkargoen eta tituludun lanbideetako arloan dituen eskumenak Euskadiko Autonomia Estatutuaren 10.22 artikuluan oinarritzen dira. Xedapen horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak bakarreko eskumena du honako gai hauetan:

*22.- Lanbide-elkargoak eta lanbide tituludunen jarduera, Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan xedatutakoari kalterik eragin gabe. (...)*

Eskumen hori baliatuta eman zen tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea. Lege hori profesionalen elkargoei eta kontseiluei eta tituludun lanbideen erregistroaren araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuak. garatu zuen.

18/1997 Legearen 29. artikuluan ezarritakoaren arabera, elkargo profesional berriak sortzea Eusko Legebiltzarrak legez onartu beharko du, profesional interesdunen behar

Las competencias de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de desarrollo de colegios profesionales y ejercicio de profesiones tituladas se fundamentan en el artículo 10.22 del Estatuto de Autonomía. Así, la Comunidad Autónoma del País Vasco tiene competencia exclusiva en materia de:

*22.- Colegios Profesionales y ejercicio de las profesiones tituladas, sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 36 y 139 de la Constitución. (...)*

En desarrollo de dicha competencia, se dictó la Ley vasca 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de colegios y consejos profesionales, que fue desarrollada por Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y los Consejos Profesionales.

De conformidad con lo establecido en el artículo 29 de la citada Ley 18/1997, la creación de nuevos colegios profesionales precisará ley del Parlamento Vasco a petición suficientemente representativa y



Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.

**LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:** J0D0Z-T56XM-E5C4
**EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA:** https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
**SINATZAILE / FIRMANTE:** MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA | 2022/05/05 07:20:11
**SINATZAILE / FIRMANTE:** JAVIER AGUIRRE ORCAJO | 2022/05/05 09:32:29

hainbateko ordezkaritzak, eta behar bezala egiaztatua, eskatuta.

debidamente acreditada de las profesionales y los profesionales interesados.

Bestalde, profesionalen elkargoei eta kontseiluei eta tituludun lanbideen erregistroaren araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren 18. artikuluak elkargo profesional berriak sortzeko prozedura arautzen du. Hain zuzen, eskatzaileek ordezkaritza egiaztatzeko aurkeztu behar dituzten agiriak zehazten ditu.

Por su parte, el artículo 18 del Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y los Consejos Profesionales regula el procedimiento para la creación de nuevos Colegios Profesionales, determinando, en concreto, la documentación a presentar por los solicitantes para acreditar la representatividad de los profesionales solicitantes de la creación del colegio.

Ildo horretan, 2019ko urtarrilaren 25ean, sartu zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Erregistro Orokorrean Asociación de Ambientólogos IZE-Euskadi izeneko elkartearen ordezkaritzak aurkeztutako eskaera Colegio Profesional de Ambientólogas y Ambientólogos de Euskadi izeneko Elkargo Profesionala sortzeko.

A estos efectos, el 25 de enero de 2019 tuvo entrada en el Registro General del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno solicitud presentada por la representación de la Asociación de Ambientólogos IZE-Euskadi, para la creación del Colegio Profesional de Ambientólogas y Ambientólogos de Euskadi.

Horren haritik, urriaren 20ko 2083/1994 Errege Dekretuaren bidez Ingurumen Zientzietako lizentziatuaren unibertsitate-titulu ofiziala ezarri zen, eta titulua lortzera bideratutako ikasketa-planen jarraibide orokorrak onartu ziren. 2001eko uztailaren 27ko Euskal Herriko Unibertsitatearen ebazpen bidez Ingurumen Zientzietako lizentziatura lortzera bideratutako ikasketa-plana homologatu zen. Ikasketa-plan hori Euskal Herriko Unibertsitateko Akademia Antolakuntzako errektoreordearen 2010eko abenduaren 20ko ebazpen bidez aldatu zen.

En este sentido ha de mencionarse que mediante Real Decreto 2083/1994, de 20 de octubre se estableció el título universitario oficial de Licenciado en Ciencias Ambientales y se aprobaron las directrices generales propias de los planes de estudios conducentes a la obtención del título, siendo homologado el plan de estudios conducentes a la titulación de Licenciado en Ciencias Ambientales en la Comunidad Autónoma de Euskadi por Resolución de 27 de julio de 2001 de la Universidad del País Vasco, modificándose por Resolución de 20 de diciembre de 2010 de la Vicerrectora de Ordenación Académica de la Universidad del País Vasco.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021

La Directora de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos es el órgano competente

Dekretuaren 11 artikuluaren arabera, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariari dagokio espediente hau ebaztea.

para la tramitación del expediente relativo a la solicitud de creación de un nuevo colegio profesional, según lo establecido en el artículo 11 del Decreto 8/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno.

Eskumen hori baliatuta, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariak zenbait kudeaketa egin ditu, elkargoa sortzeko espedientea izapidetzen jarraitzea egokia den ala ez erabakitzeko.

En desarrollo de tal competencia, por la Directora de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos se han realizado algunas gestiones conducentes a determinar la conveniencia de proseguir con la tramitación del expediente de creación del colegio.

Horren guztiaren ondorioz, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendaritzak ordezkagarritasuna egiaztatuta dagoela deritzo, aipatutako elkargo profesionala sortzeko lege-aurreproiektua izapidetu aurreko urrats gisa.

Como consecuencia de todo ello, la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos cree acreditada la representatividad como paso previo a la tramitación del anteproyecto de Ley de creación del colegio profesional mencionada.

Bestalde, Profesionalen elkargoei eta kontseiluei eta Tituludun Lanbideen Erregistroaren Araudiari buruzko otsailaren 3ko 21/2004 Dekretuaren 21. artikuluak aurreikusten duenez, dagokion elkargoa sortzeko lege-aurreproiektua egiteko prozeduran gaiaren arabera eskumena duen sailak parte hartu behar du, kasu honetan, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak. Sail honen barruan, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuan ezarritakoaren arabera, organo eskuduna Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria da.

Por otra parte, el artículo 21 del Decreto 21/2004, de 3 de febrero, sobre el Reglamento del Registro de Profesiones Tituladas, los Colegios Profesionales y los Consejos Profesionales prevé la necesidad de que en el procedimiento de elaboración del anteproyecto de ley de creación del colegio correspondiente participe el Departamento competente por razón de la materia, en este caso, al tratarse de ambientólogas y ambientólogos, el Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente. Dentro de este Departamento, de conformidad con lo establecido en el Decreto 68/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Desarrollo Económico, sostenibilidad y Medio Ambiente, el

órgano competente es el Director de Calidad Ambiental y Economía Circular.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluak xedatzen duenez, lege-aurreproiektu edo lege-proiektu bat prestatu aurretik, kontsulta publikoa bideratuko da, administrazio eskudunaren webgunearen bitartez. Horren bidez, etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta erakunde ordezkagarrienek berorren gainean duten iritzia jasoko da.

De tal manera, el artículo 133.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas dispone que, con carácter previo a la elaboración de un proyecto o anteproyecto de ley, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente, en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las demás organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma.

Hori horrela, Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko erabaki bidez, zeinak xedapen orokorrak egiteko prozedura aplikatzeari buruzko jarraibideak onartzen baititu, aurretiko kontsultaren izapidea zehaztu zen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluak dioenarekin bat. Horrela, herritarrekiko interakzio-izapide bat gauzatzen da, zeina testu juridiko arauemaile bat onartu baino lehen egin behar baita.

Así, por Acuerdo del Consejo de Gobierno, de 12 de diciembre de 2017, por el que se aprueban las Instrucciones para la tramitación de las disposiciones normativas de carácter general, se acordó cómo realizar el trámite de consulta previa para dar cumplimiento a lo dispuesto en el apartado 1 del artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del procedimiento administrativo común de las Administraciones Públicas, al objeto de propiciar el trámite de interacción con la ciudadanía que se debe realizar con un carácter previo a la aprobación de un determinado texto jurídico normativo.

Kontsultak alderdi hauek jaso behar ditu:

- Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- Arau hori onestea beharrezkoa eta egokia den.
- Arauaren helburuak.
- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

La consulta debe referirse a los siguientes aspectos:

- Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.
- La necesidad y oportunidad de su aprobación.
- Los objetivos de la norma.
- Las posibles soluciones alternativas regulatorias o no regulatorias.

Hortaz, kasu honetan aurretiko kontsultaren izapidea egin behar da, Colegio Profesional de Ambientólogas y Ambientólogos de Euskadi izeneko Elkargoa eratzeko lege-aurreproiektuaren

Por ello, se pretende dar cumplimiento al citado trámite de consulta previa en relación a la elaboración del anteproyecto de ley de creación del Colegio Profesional de Ambientólogas y Ambientólogos de

izapidetzea den bezainbatean, arauak eragiten dituen herritarrek eta beste erakunderen batek ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

Euskadi, a los efectos de que la ciudadanía y demás entidades afectadas por la norma tengan la posibilidad de participar y realizar aportaciones a dicha obligación.

Horretarako, hamar egun balioduneko epea ematen da herritarrek eta eragindako erakundeek egokitzat jotzen dituzten iradokizun edota iruzkinak aurkez ditzaten. Kontsulta hori araua egin aurretik gauzatuko da, xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikuluek araututako hasierako fasearen barruan.

De tal manera, se establece el plazo de 10 días hábiles para que la ciudadanía y las entidades afectadas presenten todas aquellas sugerencias y observaciones que tengan por conveniente. Se efectúa con carácter previo a la elaboración de la norma y dentro de la fase de iniciación que regulan los artículos 4 y 5 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuak eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuak ematen dizkiguten eskumenak baliatuz, honako hau

En virtud de las competencias atribuidas por el Decreto 8/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno y por el Decreto 68/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente

EBATZI DUGU

RESOLVEMOS

Lehena.- Kontsulta publikoaren izapidea egitea Colegio Profesional de Ambientólogas y Ambientólogos de Euskadi izeneko Elkargoa eratzeko lege-aurreproiektua idatzi baino lehen, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 29 artikuluak aurreikusitakoaren arabera.

Primero.- Someter a trámite de consulta pública, y con carácter previo a su redacción, el anteproyecto de Ley de creación del Colegio Profesional de Ambientólogas y Ambientólogos de Euskadi; tal y como prevé el artículo 29 de la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de colegios y consejos profesionales.

Bigarrena.- Herritarrek eta arauak eragindako erakundeek, hala nahi izanez gero, ebazpen honen eranskinak adierazitako alderdiei buruz duten iritzia eman dezakete, hamar egun balioduneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko webgunean

Segundo.- La ciudadanía y demás entidades afectadas por la norma, que así lo consideren, pueden hacer llegar sus opiniones sobre los aspectos planteados en el Anexo a esta Resolución en el plazo de 10 días hábiles, contados desde el día siguiente al de su publicación en el portal

| | |
|---|---|
| argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. | web de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi. |

Vitoria-Gasteizen/En Vitoria-Gasteiz

Sin./Fdo.: Miren Josune Irabien Marigorta
TOKI ADMINISTRAZIOEKIKO HARREMANETARAKO ETA ADMINISTRAZIO ERREGISTROETAKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RELACIONES CON LAS ADMINISTRACIONES LOCALES Y REGISTROS ADMINISTRATIVOS

Sin./Fdo.: Javier Agirre Orcajo
INGURUMEN KALITATEAREN ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ZUZENDARIA
DIRECTOR DE CALIDAD AMBIENTAL Y ECONOMÍA CIRCULAR

ERANSKINA

1.- Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.

Elkargo profesionala sortzeko eskatzaileen aburuz, Asociación de ambientólogos IZE-Euskadi izeneko elkartea, enpresa pribatuan zein sektore publikoan ez da behar bezala aintzatetsi ingurumen zientzialarien profil profesionala; batez ere, sektore publikoan desberdintasun kasuak antzeman dira funtzio publikoan sartzeko, beste titulazio batzuen aldean.

Hutsune horren aurrean, eta sortutako arazoari aurre egiteko, elkargoa sortzeko elkarte eskatzaileak hainbat ekintza eta kudeaketa egin behar izan ditu tituludunak ordezkatzeko. Egintza horiek, berez, elkargo profesional batek tituludunen interes profesionalak ordezkatzeko eta defendatzeko egin behar dituen jarduerak dira, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 22 artikuluak xedatutakoaren arabera. Hori dela eta bideratu dute elkargo profesionala sortzeko eskaera.

2.- Arau hori onestea beharrezkoa eta egokia den.

Ingurumen zientzialarien profilaren ordezkaritza ofizialik ezari erreparatuta, Colegio Profesional de Ambientólogas y Ambientólogos de Euskadi izeneko Elkargoa sortzea proposatzen da,

ANEXO

1.- Problemas que se pretenden solucionar con esta iniciativa.

Según los solicitantes de la creación del colegio profesional, Asociación de ambientólogos IZE-Euskadi, se ha percibido una falta de reconocimiento formal del perfil profesional de los ambientólogos o ambientólogas, tanto en la empresa privada como en el sector público, sobre todo en este último sector, donde se han encontrado casos de desigualdad en el acceso a la función pública frente a otras titulaciones regladas.

Ante dicha deficiencia y para hacer frente a la problemática creada, se ha hecho necesario que la asociación solicitante de la creación del colegio profesional haya tenido que realizar múltiples acciones y gestiones de representación de los titulados que, en realidad, son actuaciones que debe realizar un Colegio Profesional en su tarea de representación y defensa de los intereses profesionales de los titulados, de conformidad con lo establecido en el artículo 22 de la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de colegios y consejos profesionales, lo cual les ha llevado a la presentación de la solicitud de creación del correspondiente colegio profesional.

2.- Necesidad y oportunidad de su aprobación.

Es por ello, que, ante la carencia de representación oficial del perfil del ambientólogo se plantee la creación el Colegio de Ambientólogas y Ambientólogos de Euskadi, como instrumento adecuado para dar a poyo y

profesional horien lanbidea defendatzeko tresna egoki gisa.

defender el ejercicio de la labor profesional de dichos profesionales.

Hori horrela, Colegio Profesional de Ambientólogas y Ambientólogos de Euskadi izeneko Elkargoa sortzea proposatzen da, zuzenbide publikoko korporazio gisa, lanbidearen jarduna antolatzeko, kideen interesak defendatzeko eta kideen zerbitzuak jasotzen dituzten kontsumitzaile eta erabiltzaileen interesak babesteko.

Así se plantea la creación del Colegio Profesional de Ambientólogas y Ambinetólogos de Euskadi, como corporación de derecho público para la realización de la ordenación del ejercicio de la profesión así como la defensa de los intereses de los colegiados y de protección de los intereses de los consumidores y usuarios de los servicios de sus colegiados.

Beste autonomia erkidego batzuetan, tituludunen egoera aintzat hartuta, dagoeneko sortu dira elkargo profesionalak, hala nola, Katalunian, Valentziako Erkidegoan, Andaluzian, Madrilgo Erkidegoan, Murtzian eta Balear Uharteetan.

En otras Comunidades Autónomas, ante la semejante situación a la que se enfrentan los titulados, se han creado ya los correspondientes Colegios Profesionales de ámbito comunitario. Así se menciona la creación de los colegios profesionales de ambientólogos en las comunidades de: Cataluña, Comunidad Valenciana, Andalucía, Comunidad de Madrid y Región de Murcia e Islas Baleares.

Elkargo profesionala sortzeko, kasu honetan Colegio Profesional de Ambientólogas y Ambientólogos de Euskadi izeneko Elkargoa, lege bat onartu behar da, azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 29 artikuluak dioenarekin batera.

Para la creación del correspondiente Colegio Profesional, en este caso el de Ambiéntólogas y Ambientólogos se ha de aprobar una Ley, de conformidad con lo establecido en el artículo 29 de la ley 18/1997, de 21 de noviembre.

## 3.- Egin asmo den arau-proiektuaren helburuak.

## 3.- Objetivos del proyecto normativo que se pretende elaborar.

Lege-aurreproiektuaren bidez, lehenik eta behin, 18/1997 Legearen 29. artikuluak xedatutakoa betetzen da.

A través de la elaboración del anteproyecto de ley, en primer lugar, dar cumplimiento a la previsión contenida en el artículo 29 de la Ley 18/1997.

Halaber, xedea da ingurumen zientzialariei tresna bat ematea, beren interesak eta ordezkaritza

Además, se pretende dotar a los profesionales de las ciencias ambientales de un instrumento que

defendatzeko, printzipioz, kide izatea borondatezkoa dela kontuan hartuta.

defienda sus intereses y su representación, en principio, teniendo en cuenta el carácter voluntario de la colegiación.

Azkenik, elkargoen azken helburua zein den azpimarratu behar da: euren kideek ematen dituzten zerbitzuen kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interesak babestea, gizartearen interes eta behar orokorrekin bat etorriz.

Finalmente, no hay que olvidar que la finalidad última de los colegios profesionales es la protección de los intereses de los consumidores y usuarios de los servicios que prestan los profesionales colegiados, en congruencia con los intereses y necesidades generales de la sociedad.

4.- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

4.- Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Aurreko ataletan azaldutako inguruabarrak direla-eta, ezinbestekoa da lege-aurreproiektu hau egitea, ez baitago bestelako aukerarik.

Dadas las circunstancias expuestas en los apartados precedentes, la elaboración del anteproyecto de ley se presenta como necesaria, sin que puedan apreciarse otras soluciones alternativas.